


Getxo >MEETING<

Getxo MEETING, urtarrilak 16

2020. urterako estrategia bat? Bai noski!

2020. urterako estrategia bat behar baduzu eta helburuak zehaztu behar badituzu, jarraitu irakurtzen eta beherago proposatu dizkizugun ariketa erraz hauek bete.



1. urratsa. Hasi amaieratik. Idatzi 2020. urterako helburuak.

Hiru motatakoak. Ekonomia, ongizatea eta zure enpresaren kokapena.

- A. Ekonomikoa. Urteko diru-sarrerei dagokien zenbateko bat. Ez kopuru "baxuegi" bat, ez anbizio handiko helburu irrealak markatzea. Bilatu oreka, eta zenbatekoarekiko konpromisoa erakutsi.
- B. Ongizatea. Helburu ekonomikoak betetzeak ez du inolako zentzurik urte amaieran psikologikoki eta fisikoki oso nekatuta bazaude. Autozaintzarako lehentasunak zehaztu behar dira eta helburuak ezarri; izan ere, pertsona hori (zu, alegia) arduratzen da negozioa zaintzeaz, eta, datorren urtean ere, zaintzeaz arduratuko da, ezin du amore eman eta. Beste era batera esanda, zu ondo bazaude, zure enpresa ondo egon daiteke. Hauxe da ongizateari lotutako helburuen adibide bat: «aurten astelehenetik ostiralera egingo dut lan» edo «gustatzen zaizkidan lan errentagarriei emango diet lehentasuna» edo «hilean behin lau ordu libre hartuko ditut inspiratzeko».

- C. Kokapena: Zure publikoak, zure komunitateak, 2020. urtearen amaieran zure enpresa gero eta -agoa dela ulertzea nahi duzu. Kontua da zure enpresaren irudia nolakoa izatea nahi duzun jakitea, bai eta gainerako enpresei dagokienez nolakoa izatea nahi duzun ere.

2. urratsa. 2019. urteko ekintza garrantzitsuak

Paperean jaso 2019. urtean lortu dituzun eta 2020. urtean lagungarri izango diren hiru alderdi. Horrela, konturatuko zara ez zarela hasiera-hasieratik abiarazten, lana eginda duzu eta.

3. urratsa. Bezeroen araberako aurreikuspena.

2020. urterako markatu duzun diru-sarreraren zenbatekoa abiapuntu hartuta, bezeroen zerrenda bat egin eta bakoitzarekin zenbat fakturatuko duzun zehaztu. Partikularrekin lan egiten baduzu, “bezero-mota” izeneko zerrenda bat egin dezakezu. Aurreikusitako diru-sarreraren baturak, logikoki, bat bat egin behar du lehenengo urratsean adierazitako helburu ekonomikoekin.

4. urratsa. Zehaztu denbora-lerro bat.

2. urratsetik (2019. urterako ekintza garrantzitsuak) 3. urratsera (Bezeroen araberako aurreikuspena). Zeure buruari proposatu diozuna lortzeko egingo dituzun ekintza zehatzak zerrendatu behar dituzu. Kontuan izan: ekintza batzuk oso konplexuak izan daitezke eta hainbat ekintzatan bereizi beharko dituzu. Adibidez, katalogo edo dossier berri bat edukitzeak, webgune berriak edo mota horretako kontuek bitarteko lau ekintza behar izaten dituzte burutu ahal izateko. Kontuan izan hobe dela ekintza erraz ugari askoren zerrenda edukitzea, eta ez jorratzeko konplexuagoak diren gaien zerrenda labur bat.

Ariketa egiteak mota guztietako emozioak piztu ditzake. Zeure buruarekin konprometitu behar zara, nahiz eta batzuetan deserosoa izan. Sentsazio horiei aurre egitea zein ariketa hau paperean islatzea oso interesgarria izan daiteke, batik bat, zure bidean gurutzatuko zaizkizun etorkizuneko uneei begira. Plan bat prest baduzu, errazagoa izango da zure helburutik aldentzen zaituzten edo zure helburura gerturatzen zaituzten ustezko aukerak hautematea.